

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA



2002ko lehortearen eraginez, landareek ohi baino CO2 gutxiago xurgatu zuten Ipar Amerikako atmosferatik.

EKOLOGIA

Lehorteek berotegi efektua areagotzen dute

2002AN OSO LEHORTE GOGORRA jasan zuten Ipar Amerikan, eta horren ondorioz 330 milioi tona CO2 gehiago geratu ziren atmosferan. Ipar Amerikan urtero 1.850 milioi tona CO2 igortzen dira atmosferara gizakiaren jardueraren eraginez, eta horren zati bat landareek xurgatzen dute. Batez beste, landarediak xurgatzen duena 650 milioi tonatan estimatzen da, baina 2002. urteko lehorte gogorraren eraginez 320 milioi baino ez zirela xurgatu adierazi du Wouter Peters Herbereetako Wageninen Unibertsitateko ikerlariak.

2003an gauza bera gertatu zen Europan: urte horretan atmosferan ia 500 milioi tona

Osasuna

JABIER AGIRRE

Minbizidun umeen obuluak izoztu dituzte

MINBIZIAK JOTAKO bost neskaren obuluak izoztu dituzte Jerusalemgo erietxe batean, etorkizunean neska horiek haurrak izan ditzaten. Teknika berri horrek kimioterapia tratamenduek eragiten dituzten antzutasun arazoak konpontzeko balioko duela uste dute sendagileek. Dena den, oraindik ere hainbat urte itxaron beharko da obulu horiek haurdunaldia sortuko ote duten ala ez jakiteko. Israeldar zientzialariek, bederen, obuluak modu artifizialean hazi eta helduko direla uste dute.

Ugalkortasunari buruzko Europar Konferentzian israeldar talde batek aurkeztu zuen saiakuntza biomediko arrakastatsua. Jerusalemgo Hadassah Unibertsitate Ospitaleko Ariel Revel doktoreak aitortu zuenez, helburua oso argi daukate: kimioterapia edota erradioterapia tratamendua hartu beharra duten neskato horiek, etorkizunean, ama izan daitezen bideak erraztea.

Bost urteko neskatoak dira minbiziak jotakoak. Orain arte pentsatzen zen adin horretako nesken obuluak heldugabeegiak izango zirela gorputzetik kanpora ateratzeko. Emakume helduetan, berriz, nahiko praktika zabaldua da hori gaur egun.

Gaztetxoek kasuan, obuluen azaleko ehun finena izozten saiatu dira, urte batzuen buruan berriro transplantatzeko.



Bosna urteko bost neskaren obuluak gorde dituzte.

Baina adituen esanetan, sarri, azal hori hondatu egiten da hotzarekin. Obulutegiko folikuluetatik, hau da, beraien kokapen naturalek hartutako obuluak kendu eta izozteak, berriz, etorkizunean arrakasta izateko aukera gehiago eskaintzen duela azaldu dute adituek.

CO₂ gehiago geratu zela uste da. Petersen arabera, oso kontuan hartzekoak dira gertaera natural horiek. Lehorteeak, esaterako, berotegi efektua moteltzeko gizakiok hartzen ari garen neurrien eragina gutxitu dezakete. ■

ZIENTZIA

Kontinenteen higidurak kliman eragin

DUELA MILIOIKA URTE kontinente guztiak baturik zeuden, Pangea superkontinentea osatuz. Ondoren pixkanaka bereiziz joan ziren, abiadura desberdinetan gainera. Orain, Washingtoneko (AEB) Carnegie Institutuko ikerlari talde batek kontinenteen higidurak kliman duen eragina aztertu du.

Kontuan hartzen bada kontinenteen higidura oso motela dela –zentimetro batzuk baino ez urtero–, oso zaila da ondorio erabat ziurrak ateratzea. Dena den, ia segurutzat eman dute kontinenteak gelditu ere egoten direla aldiro. Horrek izugarriko eragina omen dauka kliman, izan ere, kontinenteen higidura eteteak sumendien jarduna moteltzen du, atmosferara igortzen duten partikula kopurua askoz ere txikiagoa baita. Partikula horiek oztopoa dira eguzki-izpien zatitza eta hortaz klima erregulatzen dutela esan daiteke.

Esandakoak ez du eraginik gure bizitzetan –zer da ba mende bat milioika urteren ondoan?–, baina lagungarria izan daiteke Lurrean gertatu diren beroketa-boladen zergatia ulertu ahal izateko. ■



Kontinenteak gelditu badaude, sumendien jarduna moteldu egiten da.

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Isatsari tiraka

ISATSA, BUZTANAZ GAIN, beheak garbitzeko erratzatza ere bada, baita gisatsa ere (*Cytisus commutatus*). Isuskia ere deitzen zaio, eta hortik Isuskitza ezagunak eta Isusti ezezaguna. Azken hau Huesca eta Monzon artean, Ainsa aldameneko bazkaleku gisa aipatua da 551. urtean, Asango monastegiari egindako emaitza bat jasotzen duen kartan. Toponimian sarri azaltzeak ez gaitu inolaz ere harritu behar, makina bat lanetarako gai izan baita isatsa. Dolarean, erratzaren tankera berean, garbitasunerako eta iragazkitzarako. Labeetan ere bere adarrak eskuera beti, bai erregai gisa bai ogia sartu aurretik errautsak garbitzeko. Gereta eta erromarak egiteko gaia. Zeta harrak hazteko etxolak josteko. Adar gazteak urtatu edo ur-hantatuz irukin zuntza ken dakioko, soka eta kordak bezala oihal oihas edo zarpailak egiteko gaia. Ilar, indaba eta antzekoen zarba eta pardatarako, barrika-uztaitarako... Erretako adarren sutautsa edonorako ongari potasadun ederra da. Suaz mintzo, tximini edo kebide, horma eta sabaietako kedarrak garbitzeko. Langintza honetan erabili izan den isats adar floka edo mortxakari "praileburu" deitu izan zaio. Oterik ez denean ordezko ona da luarra eta luatza egiteko, egun konposta edota simaurra diegunak egiteko, baita horien oin den ganaduaren ohe edo azpitarako ere. Hain gai ona, ez bazen sortu egin behar eta erein ere egin izan da, otea bera bezalaxe, baita bazkatarako ere.



Cytisus scoparius.

Kantauri itsasoko ertzean beste inon ez bezala berezkoa da isats hau. Isatsen artekoa den beste bat bada hegoaldean, Mediterraneoari begira bizi dena, *Cytisus scoparius*. Izenak berak eskobatartzen du. Biak karaitetik ihesi bizi dira, luberri eta lurrazala gordin kendutako sailetan are ezpanda egutertan, berriz, ezpain miakza nabarmen. Ezpainetatik bazka, isatsak han duen *genêt* izenetik datorren *généstade* gaitza deskribatzen dute albatariak Frantzian, isatsetik asko jaten duten ardiek pixa odoltsua egin eta apetitua galtzen omen dute, guk maskuriko katarroa deitzen duguna, alegia.

Nagusí zakurra eta zakur nagusia bezala, esku-eskuan hurrean izateak bat egiten omen du, eta maiz sendagai ere izan dugu isatsa. Egun inondik ere ez erabiltzeko diote jakitunek, baldin eta, adibidez, bihotzaren giharraren eroankortasun elektrikoa asaldatu nahi ez baduzu, behinipin.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdea 1, 20186 Lesarte-Oria
Tel. 941.37.16.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA